

## NARRATIBA

## Aukera aparta

## IPUINAK. ANTOLOGIA BAT

Iban Zaldua  
Erein, 2010  
264 orrialde. 8 euro

Iban BALERDI

Badira hogeitertietik gora idazle donostiarraren lanak argitaratzen hasi zirenetik. Geroztik hainbat liburu kaleratu ditu alor desberdinak landuz, hala nola ipuinak, eleberriak, saiakerak eta haur literatura. Halere, ipuingintza da urte hauetan guztietan gehien jorratu duena, esparru honetan euskal letren erreferenteetako bat bihurtzeraino, hainbat sari ere eskuraturaz.

“Ipuinak. Antologia bat” azken hogeitertietako bere ipuinen hautaketa bat da. Bertan hogeita hamabost ale bildu ditu, horietatik lau gaztelaniatik lehen aldiz itzuliak. Gainera, antologia ixteko bi ale berri ere gehitu ditu, ipuingintzaren do-dekalogo bat, eta atzeko azalean agertzen den azken tanta.

Autoreak berak sarrerakoan honakoa argitzen du: «Ipuinei ezarri didan ordena ez da kronologikoa, baina ezta ausazkoa ere. [...] Saltoka edo beste edozein ordenatan leitu daitezke ipuinok, beraz, nik neuk irakurri ditudan antologia gehienetan egin izan dudana bezalaxe». Zalduak emandakoari jarraitu diot nik eta hastapeneko istorioetatik egiten du laburtasunaren eta zehaztasunaren defentsa, alegia, ipuinaren aldeko aldarria.

Hortik aurrera, eta batzuetan elkarren



artean nahasten direlarik, esango nuke bizpahiru gai handiren inguruan dabilela gehienetan. Alde batetik, pertsonen arteko loturak egongo lirake. Hemen sar daitezke familiak, jatorriak edota iraganak markatutako kontakizunak, esate baterako, ‘Sofarena’ ironikoa, non ikusten baita gaztarora-edo lotzen gaituzten berezitasunak ezin ditugula aldendu. Kexatzen gara zerbaitez, baina aldi berean beharrezkoa dugu aurrera egiteko. ‘Itzalak’ izenburuko ipuinean ere guztiak gaudela nolabait lotuta ikusi ahal da, eta arrazoi politiko edo ekonomikoen gainetik, giza harremanak direla lotura horien faktore nagusiak.

Beste aldetik, errealitatearen eta fikzioaren arteko eremu nahasgarrian kokatzen diren ipuinak topa ditzakegu. ‘Al-datzen den gauza bakarra’ ederrean errealitatea fikzioari gailentzen zaio, eta ‘Duvrescurena’ deiturikoan asmatzen dugun orok baduela bere benetako gertaera, beraz, ez dugula benetan ezer asmatzen, guk hala uste arren.

Azkenik, linealtasuna, monotonía edo egunerokotasuna dira ukitzen dituen beste kontzeptu batzuk, eta horiek hausteko nahia edota beharra. ‘Entropia-rena’n horrelakoetan haustura tarteen egokitasunaz dihardu, nahiz eta jakin gizakia ohiturei lotutakoa dela eta beharrezkoa duela linealtasun hori. ‘Zen’ izenekoan, egunerokotasunean murgiltzean denboraren pertzepzioak nola egiten digun ihes kontatzen du, baita errealitatearen ere.

Bukatze aldera, ezin aipatu gabe utzi ‘Ipuin osoak’ irakurtzean sortzen den irribarrea. Antologia bat osatzeak, bizitzaren amaiera gertu dagoela pentsaraz dezake, zahartzaroarekin lotzen dugun kontzeptu bat bezala ikusten baita. Kasu honetan, ironiaz beteriko kontakizunearan egiten dio ideia horri. Gainera, berak esana da baduela beste bi liburu sortzeko adina material. Ez da, beraz, ezeren bukaera, garaiz datorren atzera begirakoa baizik.

Oraingoz bere obra ezagutzen ez duenak bertara hurbiltzeko aukera bikaina du liburu honen bidez. Oso prezio duinean gainera, berau argitaratzeko erabilitako poltsiko-formatuari esker. Ez dago aitziarik.



Mikel IBARGUREN

## Idaztearen zera

Bakarkako lana ei da idaztearena, idazlea bere buruarekin –bere bestearekin?– aurrez aurre ezartzen baita barne prozesu horretan. Haatik, idaztera jartzeko motiboak ugariak izan daitezke. Horrela, «norberak bere buruari jartzen dion asmakizunaren soluzioa bilatzea da idaztea», esaterako, Irati Jimenezentzat. Tahar Ben Jellouentzat, berriz, eskuekin lanean ari direnen bizitzaz aritzea da. Bizirik irauteko idazten du Eider Rodriguezek, mundua ulertzeko ahaleginean. Raul Zelikentzat, ostera, «errealitateak eragiten duen ezinaren aurrean ekiteko modua da». Eta Edorta Jimenezentzat boterea biluztea. Boterearekiko kritiko den heinean norbera biluztuz besteak biluztera behartuak direlako. Horrez gain «neure heriotza aurreikusteko premia sentitzen dudalako» hil du Omar Nabarro heteronimoa, Edorta Jimenezek. Horretarako ere balio baitu literaturak, ikasi dugunez. Heriotzari aurre hartzeko, alegia. Chateaubriand-ek esanen lukeen bezala.

Diotenez, gizakiak berezkoa du sortu beharra, beste-lako mundua egituratu beharra, bizi dugun orainetik landa egin ahal izatea. Literaturak ez du mundua aldatuko, esango du baten batek arrazoi osoz, baina kontzientziak erna ditzake errealitatearen ertz desberdinak agerian jarritz, errealitatea ez baita bat eta bakarra. Idazten dudanean, hortaz, nire subjektibitateak iragazitako errealitatea da aditzera eman nahi dudana; badakit, jakin, ez dela errealitate osoa, baina nirea da. Bestearen osagarri da. Neure buruarekin egoteko dudana beste era bat ere bada, idaztearena, introspektio bidez neure izozmendiaren azpialderaino iristeko manera baita.

Amelie Nothomb-ek idatzitakoan ulertzen ditu gauzak, idatzi arte ezer ez da erreal. Nik neuk, akaso, erantzunik ez dudalako idazten dut, idaztea bera erantzun posible bat izan daitekeela ohartu gabe.

Ez dakit, nahiz eta ulertu hobeto ulertzen dudana.


## KALERATU BERRIAK



## HISTORIA FAMILIAR CON SABOR A WESTERN

**PAÍS DE SOMBRAS**  
Peter Matthiessen  
Seix Barral, 2010  
1.136 páginas. 29,90 euros

Historia poética, mítica y devastadora de uno de los primeros terratenientes del Estado de Florida, E. J. Watson, que cometió múltiples asesinatos y murió en 1910 a manos de sus vecinos. Testimonio de la América profunda en una de sus épocas más tumultuosas, la novela obtuvo el National Book Award 2008.



## UN JUEGO DE SEDUCCIÓN VIRTUAL

**CONTRA EL VIENTO DEL NORTE**  
Daniel Glattauer  
Alfaguara, 2010  
264 páginas. 17,50 euros

Leo recibe por error un e-mail de una desconocida; le responde protocolariamente, pero a partir de ahí se establece una relación epistolar en la que uno y otro irán proyectando en tinta virtual sus anhelos y esperanzas hacia el otro. Reflexión sobre las relaciones sociales forjadas en internet y las historias de amor virtual.



## UN SUEÑO PAVOROSO

**BESTIAS**  
Joyce Carol de Oates  
Papel de Liar, 2010  
160 páginas. 15,50 euros

Catamount College. Narcóticos setenta del pasado siglo. La joven Gillian Bauer se ha enamorado con desesperada inocencia: de la poesía, de un carismático profesor, de la singular escultora que éste tiene por esposa, de la apartada mansión donde la pareja ejerce su anomalía... Gillian Bauer está a punto de penetrar en el infierno.



## LA CONQUISTA DE TUCSON

**RESISTE TUCSON**  
Alber Vázquez  
Inédita, 2010  
390 páginas. 21 euros

El autor de Errenteria se remonta al siglo XVIII en esta novela histórica y de aventuras cercana al western. En ella narra la historia de los españoles que conquistaron Tucson, se asentaron en el hoy territorio americano, se enfrentaron a los apaches y marcaron a fuego un territorio que consideraban su hogar.